



www.nomilitarism.eu

GERRARIK EZ! MILITARIZAZIORIK ERE EZ!

Distentsioaren, bakearen eta segurtasun partekatuen Europa baten alde

Azkenaldi honetan Europako buruzagi politiko batzuk gerrarako bidea urratzen ari dira. Alde batera utziz eskala handiko gatazka beliko bat gertatzeko arriskua benetakoa den ala ez, kontua da kontinente zaharreko ekonomiak gerrarako prestatzen ari direla, aurrekontu publikoetan ikusten dugun bezala, eta horren ondorioak latzak direla bizitzaren kostua Europako biztanle askorentzat jadanik onartezina den une honetan.

Historiak erakutsi digu militarizazioak gora egiten duenean gerra arriskuak ere gora egiten duela, eta orain ere horretan gaude: azken urteotan gerraren justifikazioa prestatzen ari dira. Esate baterako, 2014. urtean, NATOko kideek beren defentsa aurrekontuak BPGaren %2raino igotzea adostu zuten. Ukrainaren inbasioaren eta Palestinako egungo genozidioaren ondoren, NATOren eta EBren lehentasun politikak birbideratu egin dira: arma berriak erosteko gastua handitu, derrigorrezko zerbitzu militarra indarrean jarri, industria militarra sendotu, arma gehiago ekoizteko, eta finantzaketa areagotu da arma hilgarriagoak eta autonomoagoak garatzeko.

Europar Batasunak beldurra zabaldu du, Errusiak Europa inbaditu dezakeela esanez; horrela lortu nahi dute herritarrek errazago babestea berrarmatze eta militarizazio politikak. 2023an, berriz, EBko estatu kideen gastu militarra %21,3 igo zen, 289.300 milioi eurokoa izatera iritsita. Gainera, kopuru horri beste gastu batzuk erantsi behar zaizkie: Europar Batasuneko gastu komunitarioa (7.537 milioi €) eta Erresuma Batukoak eta Norvegiakoak (77.323 milioi €). Beraz, guztira, 374.000 milioi euroko gastu militarra ateratzen da, munduko bigarren handiena, Estatu Batuen atzetik; eta Errusiakoa (100.000 milioi €) baino ia 4 aldiz handiagoa.

Europar Batasuna disuasio militarreko politika zentzugabea aplikatzen ari da: aurkariari erakutsi nahi dio ahalmen suntsitzaile handiagoak dituela, bere boterea askoz handiagoa dela eta aurkariak uko egin behar diola erasoaren aukerari. Politika suizida horrek ondorio larriak ditu: tentsioaren eskalada, arma lasterketa eta gerra espirala eragiten ditu ezinbestean. Eta jakina, mehatxu nuklearra ere hor dago, horrek izan ditzakeen ondorio katastrofikoekin, planetako bizitza erabat suntsitzeko gai baita.

Ekainaren 9an egingo diren Europako hauteskunde garaia une egokia izan daiteke alderdi politikoei gure aldarrikapenak helarazteko. Zirt edo zart egiteko ordua da: bake, distentsio eta segurtasun partekatuko politikak bultzatu, ala eskalada militarista batean sartu. Geure esku dago aukeratzea. Defentsa gastua handitzen bada, diru gutxiago izango dugu klima aldaketari aurre egiteko, berdintasuna bultzatzeko (sozioekonomikoa eta genero alorrekoa), osasuna babesteko, eta herritar guztien soldadak eta eskubideak orekatzeko.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen dugun erakundeok zera proposatzen dugu:

- Distentsioa bultzatzea, NATOren erretorika mehatxagarritik eta espiral armamentistikoetatik urrunduta; desarmae aktibatzea, eta elkarriketaren eta elkarrekiko konfiantzaren ateak zabaltzea, beti ere gatazkak baretzeko helburuz, eta horretarako tresna hauek erabilia: diplomazia, negoziazioa, lankidetzeta eta indarkeria-eza. Politika horien ondorioz indarkeria armatuak amaitu egin beharko luke Ukrainan, Palestinan eta beste hainbat lekutan. 90eko hamarkadan European nagusi zen ildora itzuli beharko genuke: bazterketarik gabeko segurtasun komun eta partekatua aldeko apustura, alegia.
- Bakea helburu duen kanpo politika bultzatzea, giza segurtasunera bideratua, horretarako bakegintza alorreko tresna hauek erabilia: bitartekaritza, diplomazia, giza eskubideen defentsa eta esku-hartze zibila.
- Mugimendu sozial, akademiko eta politikoen arteko elkarriketarako espazioak sustatzea proposamen egokiak egin ahal izateko alor hauetan: bakerako politikak, bakerako herritar indarrak, defentsa zibila eta segurtasun ez-armatua. Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak jartzea industria militarra gizarte intereseko industria zibil bihurtzeko.
- Oinarri zientifikoetan oinarritutako ingurumen bakea aktiboki sustatzea, etorkizuneko belaunaldiek pairatu ditzaketen kalteak gutxitu eta konponduko dituzten deskarbonizazio politika justu eta segurua baliatuz.
- Pertsonen eguneroko bizitza hobetzeko politikak bultzatzea. Pertsonen beharretan oinarritutako giza segurtasuneko politika bultzatzea, haien inplikazio eta partaidetzarekin.

2024ko maiatza

Kolektibo sustatzaileak

- Centre Delàs d'Estudis per la Pau
- Fundipau
- Institut NOVACT de Noviolència
- UNIPAU
- Lafede.cat - organitzacions per a la justícia global
- Coordinadora d'ONG Solidàries de les comarques gironines i l'Alt Maresme,
- Coordinadora d'ONG pel Desenvolupament, Defensa dels Drets Humans i Pau de Tarragona
- Campanya Aturemlesguerres.cat
- Plataforma Desmilitaritzem l'Educació de Catalunya
- Fundació Carta de la Pau dirigida a l'ONU
- Justícia i Pau
- Federació de la Xarxa de Cooperació al Desenvolupament del Sud de Catalunya
- Dones x Dones
- Alternativa Antimilitarista MOC/ADNV Canarias
- Ecologistas en Acción
- Moviment d'Objecció de Consciència MOC-València
- Asamblea Antimilitarista de Madrid
- Coordinadora de ONGD del Principado de Asturias
- Plataforma Aturem la Guerra
- Plataforma Catalunya per la pau
- WILPF (Liga Internacional de Mujeres por la Paz y la Libertad)